

BK03/07 AKTA

2007KO AZAROAREN 7AN BATZORDE KUDEATZAILEAK EGINDAKO
BATZARRA

Mendexan, udaletxeko batzar aretoan, bi mila eta zazpiko azaroaren zazpian, goizeko bederatzietan, behean aipatzen diren Mendexako Batzorde Kudeatzaileko kideak bildu dira, Pedro Agustin Juaristi Leniz presidente jauna buru dela.

Bertaratuak:

Batzordekideak: Aizbea Atela Uriarte
Txomin Aurrekoetxea Iza
Iñigo Iturrate Ibarra
Kerman Meaurio Arrate
Jon Sanchez Ibarluzea
Izartza Zorrozueta Uribe
Idazkaria: Miren Begoña Laka Ortuondo

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez

Batzordeko presidente jaunak ohiko batzarrari hasiera eman dio. Berak hala erabakita, atek itxita egin da bilera.

Jarraian, ondorengo erabakiak hartu dira:

1.- AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA.- 2007ko irailaren 13ko akta irakurri ondoren, partaide guztiak euren adostasuna adierazi dute BK02/07 zenbakidun 2007ko irailaren 13ko akta onartu egin da.

2.- PRESIDENTEAK ONARTUTAKO DEKRETUEN BERRI EMATEA.- Presidente jaunak, 2007ko abuztuaren 10etik 2007ko urriaren 25era arte onartutako 2007/05tik 2007/14ra arteko dekretuen berri eman du. Partaide guztiak euren adostasuna adierazi dute presidenteak sinatutako dekretuekin eta, beharrezkoa balitz, oniritzia eman diote.

3.- 2006KO UDAL AURREKONTUAREN KONTU OROKORRAREN ONARPENA.- Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko apirilaren 20ko 500/1990 Erret Dekretuaren arabera, eta osoko bilkurak bere onarpena eman diezaion, idazkariak 2006ko Kontu Orokorra aurkeztu du, beronen osagaiak honako hauek direlarik:

- a- Ekitaldiaren itxierako egoeraren balantzea.
- b- Ekitaldiko emaitzen kontua.
- c- Ibilgetuaren zehaztasunak.
- d- Ekitaldiko memoria.
- f- Aurrekontuaren likidazioa.

g- Aurrekontuaren likidazioa eta Kontabilitate kontuen arteko kontziliazioa.

Guztiz komentatu ondoren, kontutan izanik aurrekontuaren likidazioa 2007ko martxoaren 22ko osoko bilkuran onarturik dagoela eta kontabilitate kontuen zehaztasunak azpimarratuz, udal osoko bilkurak aho batez erabaki du:

Aurkezturiko 2006ko udal aurrekontuaren Kontu Orokorra onartzea eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragartzea, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Jendurreko epean erreklamaziorik ez balego, Kontu Orokorra behin-betiko onartutzat joko da.

4.- BATZORDEKIDEEK KOBATZEKO DIRU-KOPURUAK.- Udal Korporazioa ordezkatzeko duen Batzorde Kudeatzailea eratu denez eta presidentearen proposamenez, orain arteko dietak mantendu edo aldatzeari buruzko erabakia hartu behar dela azaldu da.

Kontutan izanik Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, 11/1999 Legeak aldatua, eta EUDELeK Euskadiko udaletako hautetsien ordainsariei buruz 2001eko urriaren 3an hartutako erabakian ezarritako irizpide orokorrak.

Gaia aztertu ondoren, Batzorde Kudeatzaileak aho batez erabaki du:

1) Batzordekideen dieta eta desplazamendurako gastuak, beharkizunak betetzerakoan egindako egoitzatik kanporako irteerengatik, ordaintzeko ondorengo kopuruak ezartzea:

- Egun osoa: LAUROGEITA HAMAR (90,00 €) euro.
- Egun erdia: BERROGEITA HAMAR (50,00 €) euro.
- Norberen ibilgailuan egindako bidaiak: 0,29 €/km.
- Gainerako gastuak, bazkariak, egonaldiak, e.a. ordaintzeko fakturen bidez justifikatu beharko dira.

2) Pedro A. Juaristi Leniz eta Jon Sanchez Ibarluzea batzordekideek aparteko dedikazio dutenez, dieta bezala jasoko du bakoitzak 677,50 € hilero. Kopuru hori kalkulatzeko, orain arteko alkateak izan duen ordainsaria izan da kontutan eta bien artea banatu da.

Aipatutako batzordekideek, dieta berezia dutenez, ez dituzte 1. puntuan azaldutako dietak kobratuko. Bai kobratuko dituzte justifikatutako gastuak (bazkaria, egonaldiak,...).

3) Udal taldeentzako ondorengo diru-kopuruak ezartzea:

Udal-talde bakoitzari hilero ordaintzea 72,38 € taldeko eta beste 36,20 € taldean dagoen kide bakoitzeko. Hau da, EAJ-PNV udal taldeari hilero ordaintzea 325,78 € (72,38 € taldeari dagokiona eta 253,40 € taldeko zazpi batzordekideengatik dagokiona).

4) Udalbatzaren bileretara etortzeagatik dieta 60,00 € eurotan ezartzea, batzordekide eta etorritako batzar bakoitzeko. Aipatutako dieten ordainketa seihilebetero egingo da, izendatutako taloien bidez.

5) Akordio horiek 2007ko irailaren 1etik aurrera aplikatuko dira.

5.- ESTOLDERI ZERBITZUAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO BEHIN BEHINEKO AKORDIOA.-

Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Estolderi zerbitzuagatiko tasa arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 5. artikulua 2. lerroaldea aldatzea, kuotak %2,7an igotzeko (2006ko IPC); aldaketaren testua akordio honen eranskinean datorrelarik.

2) Toki Araubideko Oinarriak araupetzeko apirilaren 2ko 7/85 Legearen 107. artikuluan aurrikusitakoaren arauera, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu efektuak, proposatzen den gehikuntza edo aldaketak, eta bere aldaketa edo derogazioa onartu arte indarrean iraungo du.

3) Behin behineko akordio hau jendaurrean agertarazi, era berean honi atxikitako eranskina ere, hogeita hamar eguneko epean, interesdunek egoki deritzen erreklamazioak aurkez ditzaten eta espedientea azter dezaten.

4) Jendaurreko azalpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragartzea, dagokion iragarkiaren argitaratze egunaren hurrengo egunetik aurrera zenbatuko delarik azalpenerako epea.

6.- TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUPETZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO BEHIN BEHINEKO AKORDIOA.- Udaltzak aho batez erabaki du:

1) Trakzio mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga araupetzen duen Ordenantza Fiskalean 2004ko urriaren 14ko akordioz ezarritako kuotak, behin behinean gehitzea % 2,7an, 2006 urtean IPC-k izandako igoera. Horrela gutxiengo kuotei 2008rako aplikatutako koefizientea 1,70 izango da.

2) Toki Araubideko Oinarriak araupetzeko apirilaren 2ko 7/85 Legearen 107. artikuluan aurrikusitakoaren arauera, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu efektuak, proposatzen den gehikuntza edo aldaketak, eta bere aldaketa edo derogazioa onartu arte indarrean iraungo du.

3) Behin behineko akordio hau jendaurrean agertarazi, era berean honi erantsitako tarifen kuadroa ere, hogeita hamar eguneko epean, interesdunek egoki deritzen erreklamazioak aurkez ditzaten eta espedientea azter dezaten.

4) Jendaurreko azalpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragartzea, dagokion iragarkiaren argitaratze egunaren hurrengo egunetik aurrera zenbatuko delarik azalpenerako epea.

7.- ZABOR BILKETA ZERBITZUAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO BEHIN BEHINEKO AKORDIOA.- Udaltzak aho batez erabaki du:

1) Zabor bilketa zerbitzuagatiko tasa arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 6. artikulua aldatzea, kuotak %2,7an igotzeko (2006ko IPC); aldaketaren testua idatzia akordio honen eranskinean datorrelarik.

2) Toki Araubideko Oinarriak araupetzeko apirilaren 2ko 7/85 Legearen 107. artikuluan aurrikusitakoaren arauera, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu efektuak, proposatzen den gehikuntza edo aldaketak, eta bere aldaketa edo derogazioa onartu arte indarrean iraungo du.

3) Behin behineko akordio hau jendaurrean agertarazi, era berean honi atxikitako eranskina ere, hogeita hamar eguneko epean, interesdunek egoki deritzen erreklamazioak aurkez ditzaten eta espedientea azter dezaten.

4) Jendaurreko azalpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragartzea, dagokion iragarkiaren argitaratze egunaren hurrengo egunetik aurrera zenbatuko delarik azalpenerako epea.

8.- HIRIGINTZ LIZENTZIEN ZIOZKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO BEHIN BEHINEKO AKORDIOA.-

Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Hirigintz lizentzien ziozko tasa arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 6. artikulua aldatzea, kuotak %2,7an igotzeko (2006ko IPC); aldaketaren testua akordio honen eranskinean datorrelarik.

2) Toki Araubideko Oinarriak araupetzeko apirilaren 2ko 7/85 Legearen 107. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu efektuak, proposatzen den gehikuntza edo aldaketak, eta bere aldaketa edo derogazioa onartu arte indarrean iraungo du.

3) Behin behineko akordio hau jendaurrean agerrarazi, era berean honi atxikitako eranskina ere, hogeita hamar eguneko epean, interesdunek egoki deritzen erreklamazioak aurkez ditzaten eta espedientea azter dezaten.

4) Jendaurreko azalpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragartzea, dagokion iragarkiaren argitaratze egunaren hurrengo egunetik aurrera zenbatuko delarik azalpenerako epea.

9.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA BEHIN-BEHINEAN ONARTZEA.- Mendexako Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala, U.E.R.-1 exekuzio unitatearen eremuan, Udalbatzak hasieraz onartu zuen 2007ko otsailaren 22an egindako Osoko Bilkuran.

Jendaurrean azaldu ondoren hilebeteko epean ez da aurkeztu bere aurkako erreklamaziorik.

Honen aurrean, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Mendexako Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala, U.E.R.-1 “Solano” exekuzio unitatearene eremuan, behin-behinean onartzea eta Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza Sailera igortzea behin-betiko onarpena eman diezaioten.

10.- 2008 URTEKO LAN EGUTEGIRAKO HERRIKO JAI-EGUNA ONARTZEA.- 2008 urteko lan egutegia dela eta, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailburuaren ekainaren 19ko 102/2007 Dekretua onartu da. Dekretuaren 2.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, udalak proposatu behar du herriko jai-eguna, Eusko Jaurlaritzak Autonomi Elkartearentzat 2008 urterako dekretatu dituen lan-egun jaiez gainera.

Udalbatzak aho batez erabaki du:

Abuztuaren 1a, San Pedro Ad Vincula eguna, proposatzea herriko jai-egun bezala 2008 urterako.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburu jaunak bilera amaitutzat eman du goizeko bederatiak eta hamazortzi minutu direnean eta nik, Idazkariak, erabakitakoak jasotzeko akta hau egin dut.

ERANSKINA 1

ESTOLDERIA ZERBITZUAGATIKO TASA ARAUPETU DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDARAZPENA

1. Estolderia zerbitzuagatiko tasa araupetu duen Ordenantza Fiskalaren 5. artikulua
2. lerroaldea aldatu egin da, honako era honetara idatzia geratu delarik:

5. artikulua.- Tributu-kuota.

(....)

2. Estolderia eta arazketa zerbitzuengatik exijituko den tributu-kuota finan erabilitako ur kopuruaren arabera ezarriko da, metro kubikotan neurtua; kontsumitutako uraren metro kubiko bakoitzeko 0,25 € euroko tarifa ezarriko delarik, etxebizitza edo establezimenduen kategorietan bereizketarik egin gabe, hiruhilebete bakoitzean 30 metro kubikoko gutxiengo bat ezarri.

2. 1993ko urriaren 14ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez onetsi eta 1994tik eta 2006. urtera bitartean aldatu den estolderia zerbitzuagatiko tasa araupetu duen Ordenantza Fiskalaren 5. artikulua 2. lerroaldea indargabetu egin da.

3. Proposatutako aldarazpenak 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzten ondoreak, beti ere Toki Araubidearen Oinarriak araupetu dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 107. Artikuluan ezarri denarekin bat, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Mendexan, 2007ko azaroaren 7an.

PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,

ERANSKINA 2

2008 EKITALDIKO TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO
ZERGAREN TARIFEN KOADRUA

Ibilgailuaren potentzia eta mota	Gutxienerako kuota	Koefizientea	GUZTIRA
A) TURISMOAK			
8 zerga-zaldi baino gutxiago	12,62 €	1,70	21,45 €
8tik 11,99 zerga-zaldira bitartekoak	34,08 €	1,70	57,94 €
12tik 13,99 zerga-zaldira bitartekoak	60,10 €	1,70	102,17 €
14tik 15,99 zerga-zaldira bitartekoak	84,14 €	1,70	143,04 €
16tik 19,99 zerga-zaldira bitartekoak	108,18 €	1,70	183,91 €
20 zerga-zaldi baino gehiago	132,22 €	1,70	224,77 €
B) AUTOBUSAK			
21 plaza baino gutxiago	83,30 €	1,70	141,61 €
21-50 plaza	118,64 €	1,70	201,69 €
50 plaza baino gehiago	148,30 €	1,70	252,11 €
C) KAMIOIAK			
1.000 Kg-tik beherako zama erabilgarria	42,28 €	1,70	71,88 €
1.000-2.999 kg bitarteko zama erabilgarria	83,30 €	1,70	141,61 €
2.999-9.999 kg bitarteko zama erabilgarria	118,64 €	1,70	201,69 €
9.999 kg-tik gorako zama erabilgarria	148,30 €	1,70	252,11 €
D) TRAKTOREAK			
16 zerga-zaldi baino gutxiago	17,67 €	1,70	30,04 €
16tik 24,99 zerga-zaldira bitartekoak	27,77 €	1,70	47,21 €
25 zerga-zaldi baino gehiago	83,30 €	1,70	141,61 €
E) TRAKZIO MEKANIKODUN ATOIAK ETA ERDI ATOIAK			
1.000 Kg-tik beherako zama erabilgarria	17,67 €	1,70	30,04 €
1.000-2.999 kg bitarteko zama erabilgarria	27,77 €	1,70	47,21 €
2.999 kg-tik gorako zama erabilgarria	83,30 €	1,70	141,61 €
F) BESTE IBILGAILU BATZUK			

Ziklomotorrak	4,42 €	1,70	7,51 €
125 cc arteko motozikletak	4,42 €	1,70	7,51 €
125 cc baino gehiagotik 250 cc arteko motozikletak	7,57 €	1,70	12,87 €
250 cc baino gehiagotik 500 cc arteko motozikletak	15,15 €	1,70	25,76 €
500 cc baino gehiagotik 1.000 cc arteko motozikletak	30,29 €	1,70	51,49 €
1000 cc-tik goragoko motozikletak	60,58 €	1,70	102,99 €

Mendexan, 2007ko azaroaren 7an.

O.E.
PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,

ERANSKINA 3

ZABOR BILKETA ZERBITZUAGATIKO TASA ARAUPETU DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDARAZPENA

1. Zabor bilketa zerbitzuagatiko tasa araupetu duen Ordenantza Fiskalaren 6. artikulua aldatu egin da, honako era honetara idatzia geratu delarik:

6. artikulua.- Tributu-kuota.

1. Tributu-kuota unitate eta lokaleko zenbateko finko bat izango da; zenbateko hori higiezin izatera eta helburuaren eta unitate edo lokal horiek kokatuta dauden toki, plaza, kale edo herribide horren mailaren arabera zehaztuko da.

Ondore horietarako, ondoko tarifa hau aplikatuko da:

- 1.1. Etxebizitzak: 14,66 euro/hiruhilero.
- 1.2. Merkataritzarako lokalak: 32,98 euro/hiruhilero.
- 1.3. Industriak eta hostalaritza: 54,95 euro/hiruhilero.
- 1.4. Camping Leagi: 135,57 euro/hiruhilero.

2. 1989ko abenduaren 26ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez onetsi eta 1992tik eta 2006. urtera bitartean aldatu den zabor bilketa zerbitzuagatiko tasa araupetu duen Ordenantza Fiskalaren 6. artikulua indargabetu egin da.

3. Proposatutako aldarazpenak 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondoreak, beti ere Toki Araubidearen Oinarriak araupetu dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 107. Artikuluan ezarri denarekin bat, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Mendexan, 2007ko azaroaren 7an.

PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,

ERANSKINA 4

HIRIGINTZ LIZENTZIEN ZIOZKO TASA ARAUPETZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDARAZPENA

1. Hirigintz lizentzien ziozko tasa araupetu duen Ordenantza Fiskalaren 6. artikulua aldatu egin da, honako era honetara idatzia geratu delarik:

6. artikulua.- Tributu-kuota.

1. Tributu-kuota, artikulua honetan berrusartzen den tarifari jarraituz izapidetuko den lizentziak duen izaeraren arabera adierazitako kopuru finko baten bidez zehaztuko da.

2. Tarifaren kuota, eskabide bakoitzean, dagokion lizentziaren tramitazio osoari, hasieratik azken ebazpenerainokoari, barne direlarik interesatuarentzako ziurtagiria eta berriematea, dagokio.

13,74 €euroko tasa jartzea obra txikiak direnean eta 43,24 €euroko tasa jartzea obra handiak direnean.

2. 1989ko abenduaren 26ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez onetsi eta 2000tik 2006 urtera bitartean aldatu zen hirigintz lizentzien ziozko tasa araupetu duen Ordenantza Fiskalaren 6. Artikulua indargabetu egin da.

3. Proposatutako aldazpenak 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondoreak, beti ere Toki Araubidearen Oinarriak araupetu dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 107. Artikuluan ezarri denarekin bat, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Mendexan, 2007ko azaroaren 7an.

PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,